

ACUMULADO AÑO 2025 / 2025EKO URTEAN METATUA

	VIAJEROS BIDAIAIRIAK	PERNOCTACIONES OSTATU-GAUAK	ESTANCIA MEDIA (días) BATEZ BESTEKO EGONALDIA (egunak)
	<p><b>2.010.303</b></p> <p>2023  +3,1%    2024  +2,8</p>	<p><b>4.179.918</b></p> <p>2023  +4,2%    2024  +2,5%</p>	<p><b>2,08</b></p> <p>2023  +0,1%    2024  -0,3%</p>
<b>NACIONALES ESPAINIAKOAK</b>	<p><b>1.362.990</b></p> <p>68 % </p> <p>2023  +8,9%    2024  +1,5%</p>	<p><b>3.113.822</b></p> <p>75 % </p> <p>2023  +6,4%    2024  +2,0%</p>	<p><b>2,28</b></p> <p>2023  -2,5%    2024  +0,5%</p>
<b>INTERNACIONALES NAZIOARTEKOAK</b>	<p><b>647.308</b></p> <p>32 % </p> <p>2023  -7,2%    2024  +5,7%</p>	<p><b>1.063.092</b></p> <p>25 % </p> <p>2023  -2,1%    2024  +4,0%</p>	<p><b>1,64</b></p> <p>2023  +5,12%    2024  -1,6%</p>

Analizando las principales magnitudes del turismo en Navarra durante 2025, la conclusión principal que se puede extraer es la consolidación de una tendencia positiva, tanto en el volumen de visitantes como en las pernoctaciones que éstos realizan. Esta evolución continúa sustentándose, de manera significativa, en el incremento de visitantes internacionales.

No obstante, las pernoctaciones de los visitantes nacionales representan el 75 % del total. Por lo tanto, no se debe olvidar que el turismo en Navarra es, ante todo, de proximidad. Este perfil de visitante constituye aproximadamente el 68 % de todos los turistas registrados a lo largo del año.


Nafarroan turismoak 2025ean izan dituen datu nagusiak aztertuta, gure ondorio nagusia da joera positiboa sendotu dela, bai bisitarien kopuruari dagokionez, bai bisitarien egiten dituzten ostatu-gauei dagokienez.

Nazioarteko bisitarien hazkundeak bilakaera horren oinarri izaten jarraitzen du, neurri handi samar batean.


Nolanahi ere, bisitari nazionalen ostatu-gauak kopuru osoaren % 75 dira. Honegatik, ez zaigu ahanzi behar Nafarroako turismoa hurbilekoa dela batez ere: mota horretako bisitariak erregistratutako turista guztien % 68 inguru dira.

PERSONAS VIAJERAS Y PERNOCACIONES/ BIDAIARIAK ETA OSTATU-GAUAK

VIAJEROS  
BIDAIARIAK





PERNOCTACIONES  
OSTATU-GAUAK



Más allá de la distinta distribución de visitantes y pernoctaciones a lo largo del año, condicionada por la celebración de la Semana Santa en fechas variables, la representación gráfica de la llegada de viajeros a Navarra evidencia una menor descentralización durante el periodo estival de 2025. La tendencia positiva global de este año viene marcada por la mayor intensidad de visitantes antes y después de los meses de verano. Por otra parte, las pernoctaciones no han registrado una evolución tan favorable.

Nafarroara etorritako bidaiarien irudikapen grafikoak agerian uzten du deszentralizazio txikiagoa egon dela 2025eko udan, urtean zehar –Aste Santuaren data aldakorrek baldintzatuz– bisitarien eta ostatu-gauen banaketak gorabeherak izateaz landa. Urte horretako joera positibo orokorrean, nabarmentzekoa da udako hilabeteen aurretik eta ondoren bisitari gehiago etorri izana. Bestalde, ostatu-gauak ez dute hain bilakaera ona izan.

## VIAJEROS SEGÚN ALOJAMIENTOS TURÍSTICOS / OSTATU TURISTIKOAK (I)



Las cifras registradas en 2025 reflejan un comportamiento de alojamientos hoteleros bastante positivo, reforzando su peso en nuestra Comunidad. Entre los alojamientos extrahoteleros, esta evolución se ha repetido exclusivamente en los campings y albergues.



Por el contrario, los alojamientos rurales, que experimentaron un crecimiento excepcional durante los años marcados por la pandemia de COVID-19, han registrado ahora una disminución en el número de viajeros. Una tendencia similar se observa en los apartamentos turísticos.

2025ean erregistratutako zenbakiak argi eta garbi erakusten dute hotel-establezimenduen emaitzak oso positiboak izan direla, eta Foru Komunitatean duten pisua indartu dela.

Hotelez kanpo, bilakaera hori bakarrik kanpinetan eta aterpetxeetan egon da.

Aitzitik, landa-ostatuak –zeinetan aparteko hazkundera egon baitzen COVID-19aren pandemiak markatutako urteetan– bidaiari gutxiago izan dituzte. Antzeko joera bat ikusten da apartamentu turistikoetan.


## PERNOCTACIONES SEGÚN ALOJAMIENTOS TURÍSTICOS / OSTATU TURISTIKOAK (II)



En el caso de las pernoctaciones, la evolución interanual también ha sido desigual según el tipo de alojamiento. Hoteles y los campings han sido los únicos que han registrado crecimientos. Por el contrario, albergues, alojamientos rurales y, especialmente apartamentos turísticos, han experimentado descensos en las pernoctaciones.

Ostatu-gauen urte arteko bilakaera ere desberdina izan da ostatu motaren arabera. Hotelek eta kanpinek hazkundeak izan dituzte. Aitzitik, aterpetxeek, landa-ostatuek eta, bereziki, apartamentu turistikoek behera egin dute ostatu-gauetan.

## EVOLUCIÓN MENSUAL Pernoctaciones / OSTATU TURISTIKOAK (III)



El análisis mensual de las pernoctaciones evidencia una marcada estacionalidad en la ocupación de los distintos tipos de alojamiento. Así, la mayoría de los establecimientos concentra su actividad en agosto, especialmente los campings.


En contraste, los albergues presentan dos picos de mayor intensidad durante los meses de abril y mayo, reflejando un patrón estacional distinto.

Los apartamentos turísticos destacan por mantener una ocupación más estable a lo largo del año, con menor fluctuación en comparación con otros alojamientos.

Ostatu-gauak hilabetez hilabete aztertuta, agerian geratu da ostatu-moten okupazioa urtaroezin oso lotuta dagoela. Hala, establezimendu gehienek abuztuan izaten dute lanik gehien; bereziki, kanpinek. Aterpetxeek, aldiz, intentsitate handiagoko bi goraldi dituzte: apirilean eta maiatzean, hain zuzen; beraz, beste eredu bat dute urtaroei dagokienez.

Bestalde, apartamentu turistikoek urtean zehar okupazio egonkorragoa dute, gorabehera gutxiagorekin beste ostatu batzuekin alderatuta.



% VARIACIÓN 2025/2024/2023 % BARIAZIOA



\*Dato último mes (diciembre) /  
Azken hilabetea datua

### GRADO DE OCUPACIÓN PROMEDIO 2025 (%)

#### 2025KO HILABETETAN BATEZ BESTEKO OKUPAZIO MAILA (%)




La oferta turística ha aumentado en los últimos años y se sitúa cercana a las 25.000 plazas. Entre los alojamientos con mayor ocupación destacan los establecimientos hoteleros, con un 58%. La ocupación de los apartamentos también se sitúa por encima del 50%, aunque registra una evolución interanual descendente (-10%), al igual que el turismo rural y, en menor medida, los campings. En cuanto a la estancia media, son nuevamente los campings y, en este caso, también los apartamentos y albergues, los que experimentan una reducción


Turismo-eskaintzak gora egin du azken urteotan, eta 25.000 plazara iristear dago. Okupazio handieneko ostatuen artean, hotel-estabiezimenduak nabarmentzen dira, % 58arekin. Apartamentuen okupazioa ere % 50etik gorakoa da, baina urte arteko beheranzko bilakaera izan du (-% 10), landa-turismoak bezala eta, neurri txikiago batean, kanpinen bezala. Batez besteko egonaldiak dagokienez, berriro ere kanpinetan laburragoak izan dira, baita, orainoan, apartamentu eta aterpetxeetan ere.

## ESTACIONALIDAD / URTAROKOTASUNA

COEFICIENTE DE GINI / GINI KOEFIZIENTEA  
DISTRIBUCIÓN DEL NÚMERO DE VIAJEROS A LO LARGO DEL AÑO AL MES  
BIDAIARI KOPURUAREN BANAKETA URTEAN ZEHAR



COEF: GINI POR TIPO DE ALOJAMIENTO  
GINI KOEFIZIENTEA OSTATU MOTAREN ARABERA




El Coeficiente de GINI es una medida del grado de igualdad en una distribución de datos. Siempre es entre 0 y 1 y cuanto menor es más igual es la distribución. En el caso de turismo, un índice cercano a cero indica un turismo poco estacionalizado, una característica presente en nuestra comunidad y, en tendencia descendente durante los últimos años.

Siendo los campings los que mantienen en el tiempo el Gini más elevado de todos, frente a hoteles y apartamentos que se encuentran en los niveles más bajos.

GINI koefizienteak datu-banaketa baten berdintasun-maila neurtzen du. Beti 0 eta 1 artekoa da, eta zenbat eta txikiagoa izan, orduan eta berdina da banaketa. Turismoaren kasuan, zerotik hurbil dagoen indize batek urtaroeekin lotura txikia duen turismo bat erakusten du. Hori da, hain zuzen, Foru Komunitateko ezaugarrietako bat, eta, gainera, beheranzko joera du azken urteotan.

Kanpinak dira denboran zehar GINI altuenari eusten diotenak; hotelak eta apartamentuak, aldiz, mailarik baxuenetan daude.

PROCEDENCIAS VIAJEROS/ BISITARIEN BIZILEKUAK



En Navarra, el turismo de proximidad continúa siendo el protagonista, aunque en un contexto marcado por el descenso de los visitantes locales (-7,4%), probablemente vinculado a la recesión observada en el sector del turismo rural.

Por otro lado, crece de forma constante la presencia de viajeros internacionales, especialmente procedentes de Europa (+4,3%), que ya representan el 19% del total de visitantes.

Nafarroan, hurbileko turismoa da protagonista oraindik ere, baina tokiko bisitarien beherakadak markatutako testuinguru batean (-% 7,4), ziurrenik landa-turismoaren sektorean ikusitako beheraldiaren ondorioz. Bestalde, nazioarteko bidaiarien presentzia etengabe ari da hazten, bereziki Europatik etorritakoena (+% 4,3), horiek jada bisitari guztien % 19 direlarik.



% VARIACIÓN 2025/2024 % BARIAZIOA

### REV PAR ANUAL

INGRESOS POR HABITACIÓN DISPONIBLE  
BATEZ BESTEKO DIRU-SARRERA LOGELA  
LIBRE BAKOITZEKO

**46,5€**

2024

+4,7%

Los ingresos por habitación disponible en los establecimientos registran un aumento interanual del +4,7%. La rentabilidad ha sido mayor que en 2024 durante los meses previos al verano y posteriores.

Establezimenduetan, logela erabilgarri bakoitzeko diru-sarrerek % 4,7ko urte arteko igoera izan dute. Errentagarritasuna 2024an baino handiagoa izan da uda aurreko eta uda ondoko hilabeteetan.

### ADR ANUAL

TARIFA MEDIA DIARIA POR HABITACIÓN  
OCUPADA

EGUNEKO BATEZ BESTEKO DIRU-SARRERA  
OKUPATUTAKO LOGELA BAKOITZEKO


**78,9€**

2024

-1,4%

Los ingresos medios por cada habitación ocupada rompen la tendencia ascendente de este tipo de indicadores, con un leve descenso del -1,4%.

Okupatutako logela bakoitzeko batez besteko diru-sarrerek horrelako adierazleen goranzko joera hausten dute, % 1,4ko jaitsiera txikia izan baitute.



% VARIACIÓN 2025/2024 % BARIAZIOA

### IPH / HPI


ÍNDICE DE PRECIOS HOTELEROS  
HOTELETAKO PREZIOEN INDIZEA

**111,8\***

2024  
-0,4%

Este índice resume la evolución de los precios hoteleros considerando todos los clientes (hogares, empresas, tour-operadores y agencias de viajes). En todo momento, exceptuando los meses de marzo y abril por el cambio de fecha de la Semana Santa, este índice se sitúa en niveles muy similares a los de 2024.

Indize horrek hotel-prezioen bilakaera laburbiltzen du bezero guztiak kontuan hartuta (etxeak, enpresak, tour-operadoreak eta bidaiia-agentziak). Une oro, indize hori 2024ko mailen oso antzekoa izan da, martxoan eta apirilean izan ezik (Aste Santuaren data aldatetarik).



### IPTR / LTPI


ÍNDICE DE PRECIOS TURISMO RURAL  
LANDA TURISMOKO PREZIOEN INDIZEA

**236,4\***

2024  
-0,2

El índice de precios en el Turismo rural se mantiene durante todo el año muy por encima de las cifras alcanzadas a nivel estatal. 2025 acaba con un valor prácticamente igual al registrado en diciembre de 2024.

Landa-turismoko prezioen indizea Estatuko zenbatekoak baino askoz handiagoa da urte osoan. 2025eko balioa 2024ko abenduan izandakoaren ia berdina da.




\*Dato último mes (diciembre) / Azken seihlekoaren datua

2023 **19.076** 2024  
 ▲ +0,9% ▲ +0,3%


## EMPLEO TURÍSTICO / TURISMOAREN SEKTOREKO ENPLEGUA

NÚMERO DE AFILIACIONES A LA SEGURIDAD SOCIAL EN LAS RAMAS TURÍSTICAS A 31/12/2025/ GIZARTE SEGURANTZAKO AFILIAZIO-KOPURUA TURISMOKO ADARRETAN 2025-12-31N


### SEXO SEXUA




### TIPO DE CONTRATO KONTRATU MOTA




### TIPO DE JORNADA LANALDI MOTA



### ACTIVIDAD JARDUERA



### TOTAL / GUZTIRA



Salvo en el periodo estival, a lo largo de 2025 se han llegado a superar las cifras históricas de empleo de 2024, por encima de las 20.000 afiliaciones en mayo y octubre. El empleo de las mujeres sigue siendo predominante (63%) y la presencia de la jornada parcial muestra un peso relevante (45%).


Udan izan ezik, 2025ean zehar 2024ko enpleguaren zenbateko historikoak gainditu dira, maiatzean eta urrian 20.000 afiliatortik gora egon direlarik. Emakumeen enpleguak nagusi izaten jarraitzen du (% 63), eta lanaldi partzialak garrantzi handia du (% 45).



% VARIACIÓN 2025/2024/2023 % BARIAZIOA

### OFICINAS DE TURISMO / TURISMO BULEGOAK

#### PROCEDENCIAS / JATORRIAK




ACUMULADO CONSULTAS ATENDIDAS EN 2025


**316.361**

2023 -10,0%  
2024 -7,5%

2025AN ARTATUTAKO BISITEN KOPURU METATUA




### CONSULTAS POR MESES / KONTSULTAK HILABETE BAKOITZEAN



### CONSULTAS POR OFICINA

#### KONTSULTAK BULEGO BAKOITZEAN

% VARIACIÓN 2024 % BARIAZIOA



Como viene siendo habitual desde la pandemia, el volumen de atenciones en destino de la Red de Oficinas de Turismo se ha reducido. Este último año el descenso significa un -7,5%, aunque puede estar influenciado también por el cierre temporal de la OIT de Pamplona. La excepción de encuentra en las OIT de Sangüesa y Estella, en las que se produce una aumento de demandas en destino del +25% y del 18%, respectivamente.

Pandemiaz geroztik ohikoa den bezala, turistek gutxiago jo dute Turismo Bulegoen Sareko arreta-puntuetara. Azken urte horretan, jaitsiera hori % 7,5ekoa izan da, baina baliteke Iruñeko turismo-bulegoaren aldi baterako itxierak ere horretan eragina izatea. Salbuespena Zangozako eta Lizarrako turismo bulegoetan dago, bertan atenditutako jendea % 25 eta % 18 igo baita, hurrenez hurren.

\*Oficina de Pamplona solo abierta hasta septiembre/



### CAMINO DE SANTIAGO / DONEJAKUE BIDEA



**CREDECIALES SELLADAS EN RONCESVALLES DURANTE 2025**  
2025EAN ORREAGAN ZIGILATUTAKO KREDENTZIALAK



**42.215**

2023 -14,7%  
2024 -10,3%

### MODO DE REALIZACION DEL CAMINO GARRAIOBIDEA




### PROCEDENCIAS / BIZILEKUAK:



### ACUMULADO PEREGRINOS 2025 A SU PASO POR ORREAGA/RONCESVALLES

#### 2025AN ERROMESEN KOPURU METATUA ORREAGATIK IGOROTZERAKOAN



Durante 2025, se mantiene la tendencia descendente del número de credenciales selladas en Orreaga/Roncesvalles. Las cifras totales suponen una reducción de peregrinos del 10% con respecto al año anterior. Hay que destacar que el descenso continúa acentuándose entre aquellos cuya procedencia es nacional.

2025ean, Orreagan zigilatutako kredentziazien kopuruak beheranzko joerari eutsi dio. Guztizko zenbatekoak adierazten dute erromesen kopurua % 10 jaitsi dela aurreko urtearekin alderatuta. Nabarmendu beharra dago jaitsiera hori betiere handiagoa dela jatorri nazionala dutenen artean.

## CICLOTURISMO / ZIKLOTURISMOA

ACUMULADO BICICLETAS CONTADAS EN 2025

**23.697**


2023 2024  
▲ -17,4% ▼ -0,3%

2025EAN ZENBATUTAKO BIZIKLETA MUTATUA

TOTAL DE BICICLETAS CONTADAS EN:

TOKI HAUETAKO KONTAGAILUEK ZENBATUTAKO BIZIKLETAK, GUZTIRA:


VV/BB BIDASOA DONEZTEBE/SANTESTEBAN, VV/BB PLAZAOLA/EUROVELO 1 IRURTZUN, VV/BB VASCO-NAVARRO ANCÍN, VV/BB TARAZONICA Y/ETA VV/BB IRATI



Bicicletas por contador:

Bizikletak kontagailu bakoitzeko:

2025 2024 2023



El dato global de la actividad cicloturista, registrado por los contadores durante 2025, es prácticamente similar al del año anterior (que fue especialmente positivo). La actividad se concentra entre los meses de abril y agosto. Los corredores con mayor crecimiento de afluencia son, en esta ocasión, Plazaola e Irati.

Zikloturismoko jardueraren datu orokorra, kontagailuek 2025ean erregistratua, aurreko urteko datuaren ia berdina da (urte hartan, oso positiboa izan zen). Apirilean eta abuztuan dago kopururik altuena. Eta, oraingo honetan, Plazaolako eta Iratiko korridoreek izan dute gorakadarik handiena.

## RECURSOS TURÍSTICOS / BALIABIDE TURISTIKOAK



Yacimiento de Andelos: Acceso cortado desde septiembre. Datos de octubre no disponibles, del resto de yacimientos


ACUMULADO VISITANTES DURANTE 2025 EN LOS PRINCIPALES RECURSOS TURÍSTICOS MONITORIZADOS

**1.146.143**

2023 +2,6%  
2024 -0,5%

2025EAN BISITARIEN KOPURU METATUA MONITORIZATUTAKO BALIABIDE TURISTIKO NAGUSIETAN

## VISITANTES A RECURSOS TURÍSTICOS BALIABIDE TURISTIKOETARAKO BISITARIAK



Los recursos turísticos han recibido, durante 2025, un volumen de visitantes que en 2024, manteniendo cifras muy positivas. Los descensos de visitantes se han producido en los recursos con mayor concentración de visitas, por lo que ha existido una sutil fluctuación hacia menor afluencia.

2025ean, baliabide turistikoek 2024ko bisitari kopuru ia bera izan dute; zifra positiboekin zuzenean. Bisitari kopuruak behera egin du bisita gehien izan duten baliabideetan, eta horrek eragin du bisita gutxiagoko baliabideetarako.

## EXPECTATIVAS TURÍSTICAS 2025/ 2025KO IGURIPEN TURISTIKOAK


### Exceltur. N95. Valoración turística empresarial de 2025 y perspectivas para 2026

#### Variación 2026 versus 2025

Niveles de facturación de las CCAA en 2025 y previsiones para 2026 / *Autonomia-erkidegoen fakturazio-mailak 2025ean, eta 2026rako aurreikuspenak*

Niveles de facturación. Variaciones interanuales (en %) / *Fakturazio mailak. Urte arteko gorabeherak (ehunekoetan)*

Fuente: Encuesta de Confianza de Exceltur (ene 2026) / *Iturria: Exceltur konfiantza-inkesta*



“Los destinos del litoral español presentan de cara a 2026 las mejores expectativas de mejora de sus ventas y resultados respecto a 2025, siguiendo la tendencia manifestada en 2025, con la Co. Valenciana, la Región de Murcia y Baleares a la cabeza, si bien las expectativas son también positivas en Canarias y Andalucía. En los destinos del norte destaca el País Vasco y en los de interior Castilla La Mancha, mientras los destinos urbanos se muestran más cautos por su mayor exposición al turismo de negocios y a mercados de larga distancia, más sensibles al escenario geopolítico global.”

«Espainiako itsasertzeko destinoek –2025arekin alderatuta– 2026an salmentak eta emaitzak hobetzeko aurreikuspen bikainak dituzte. 2025ean izandako joerari eutsiko zaio, Valentziako Erkidegoa, Murtziako Eskualdea eta Balear Uharteak buruan direla, baina Kanarietarako eta Andaluziarako ere aurreikuspen positiboak daude. Iparraldeko destinoetan Euskal Autonomia Erkidegoa nabarmentzen da, eta barnealdekoetan, berriz, Gaztela-Mantxa. Hiri-destinoekin, berriz, zuhurragoak izan beharra dago, negozio-turismoaren eta distantzia luzeko merkatuen eragin handiagoa dutelako, eta horiek egoera geopolitiko globalaren mendeand daudelako.»

## FUENTES

### INSTITUTO NACIONAL DE ESTADÍSTICA (INE)

Los datos aquí expuestos provienen de las distintas encuestas de ocupación que el INE desarrolla con una frecuencia mensual en establecimientos turísticos regulados pertenecientes al Registro de Turismo de Navarra.

- Encuesta de Ocupación Hotelera (EOH)
- Encuesta de Ocupación en Campings (EOC)
- Encuesta de Ocupación de alojamientos de Turismo Rural (EOTR)
- Encuesta de Ocupación de Apartamentos Turísticos (EOTR)
- Encuesta de Ocupación en Albergues (se realiza exclusivamente en albergues juveniles) (EOAL)

### INSTITUTO DE ESTADÍSTICA DE NAVARRA (NASTAT)

Perteneciente al Departamento de Presidencia e Igualdad del Gobierno de Navarra, ofrece estadísticas de turismo, fruto de la explotación de microdatos para Navarra, procedentes de las encuestas de ocupación del INE.

### EMPLEO TURÍSTICO

Promedio de altas de trabajadores en la Seguridad Social en las actividades económicas de Servicios de Alojamiento (CNAE 2009 -55), Servicios de Comidas y Bebidas (CNAE 2009-56) y Agencias de Viajes y Operadores Turísticos (CNAE 2009-79).

### OFICINAS DE TURISMO

Registro de consultas presenciales atendidas en la Red de Oficinas de Turismo de Gobierno de Navarra, integrada por 11 oficinas ubicadas en las siguientes localidades turísticas: Bértiz, Estella-Lizarrá, Javier, Lekunberri, Ochagavía, Olite, Orreaga/Roncesvalles, Pamplona, Sangüesa, Tudela, Roncal. La Oficina de Turismo de Javier está abierta únicamente durante las Javieradas (marzo), Semana Santa, julio y agosto.

### VISITANTES A RECURSOS TURÍSTICOS

Datos cedidos por las entidades gestoras de los recursos turísticos.

### CAMINO DE SANTIAGO

Como indicador del número de peregrinas y peregrinos que pasan por Navarra, se utiliza el registro de personas que sellan su credencial en el Santuario de Orreaga/Roncesvalles, pernecten o no en su albergue.

### CONTADORES-CICLOTURISMO

Extracción de información sobre el paso de ciclistas en un determinado punto de control, utilizando dispositivos automáticos.

### EXCELTUR

Es una asociación sin ánimo de lucro formada por 30 de las más relevantes empresas de toda la cadena de valor turística y de los subsectores del transporte aéreo, ferroviario, marítimo y terrestre, alojamiento, agencias de viajes y tour operadores, medios de pago, alquiler de coches y centrales de reservas/GDS.

## ITURRIAK

### ESTADISTIKAKO INSTITUTU NAZIONALA (EIN).

Hemen azaldutako datuak EINek hilero Nafarroako Turismo Erregistroko establezimendu turistiko arautuetan egiten dituen okupazio-inkestetarik datoz.

- Hotelen okupazioari buruzko inkesta (HOI)
- Kanpinen okupazioari buruzko inkesta (KOI)
- Landa-turismoko ostatuen okupazioari buruzko inkesta (LTOI)
- Apartamentu turistikoaren okupazioari buruzko inkesta (ATOI)
- Aterpetxean okupazioari buruzko inkesta (gazte-aterpetxeena soilik) (AOI)

### NAFARROAKO ESTADISTIKA INSTITUTUA (NASTAT)

Nafarroako Gobernuko Lehendakari eta Berdintasun Departamentukoa da, eta turismoaren sektoreko estatistikak eskaintzen ditu, EINen okupazio-inkestetarik datozen Nafarroarako mikrodatuak ustiatuz.

### TURISMOAREN SEKTOREKO ENPLEGUA

Gizarte Segurantzako langileen alden batezbestekoa ostatu-zerbitzuetan (EJSN 2009-55), janari- eta edari-zerbitzuetan (EJSN 2009-56) eta bidai- agentzietan eta bidai- agentzia handizkarietan (EJSN 2009-79).

### TURISMO BULEGOAK

Nafarroako Gobernuko turismo bulegoen sarean aurrez aurre artatutako kontsulten erregistroa; 11 bulego daude sarean, herri turistiko hauetan: Bertiz, Lizarrá, Xabier, Lekunberri, Otsagabia, Erriberri, Orreaga, Iruña, Zangoza, Tuterá, Erronkari. Xabierko turismo bulegoa Xabierraldietan (martxoan), Aste Santuan, uztailean eta abuztuan soilik dago zabalik.

### BALIABIDE TURISTIKOETAKO BISITARIAK

Baliabide turistikoak kudeatzen dituzten erakundeek lagatako datuak.

### DONEJAKUE BIDEA

Nafarroatik igarotzen diren erromesen kopurua kalkulatzeko, Orreagako santutegian kredentziala zigilatzen duten pertsonen erregistroa erabiltzen da, hango aterpetxean gaua igaro ala ez.

### KONTAGAILUEK- ZIKLOTURISMOA

Bizikletari pasabideari buruzko informazioa lortzea kontrol-puntu jakin batean, gailu automatikoak erabiliz

### EXCELTUR

Irabazi-asmorik gabeko elkarte bat da, balio turistikoko kate osoko 30 enpresa garrantzitsuenek eta aireko, trenbideko, itsasoko eta lurreko garraioaren, ostatuaren, bidai- agentzien eta touroperadoreen, ordainketa-bitartekoen, autoen alokairuaren eta erreserba-zentralen aspisektoreen osatua.

## GLOSARIO

### VIAJERO

Todas aquellas personas que realizan una o más pernoctaciones seguidas en el mismo alojamiento INE

### PERNOCTACIONES

Se entiende por pernoctación o plaza ocupada cada noche que un viajero se aloja en el establecimiento. INE

### ESTANCIA MEDIA

Esta variable es una aproximación al número de días que, por término medio, los viajeros permanecen en los establecimientos y se calcula como cociente entre las pernoctaciones y el número de viajeros. INE

### GRADO DE OCUPACIÓN POR HABITACIONES

Relación, en porcentaje, entre la media diaria de habitaciones ocupadas en el mes y el total de habitaciones disponibles en el mismo periodo. INE

### GRADO DE OCUPACIÓN POR PLAZAS

Relación, en porcentaje, entre el total de las pernoctaciones y el producto de las plazas, incluyendo las camas supletorias, por los días a que se refieren las pernoctaciones. INE

### GRADO DE OCUPACIÓN POR PARCELAS

Relación, en porcentaje, entre el total de parcelas ocupadas en el mes y las disponibles en el camping en el mismo periodo multiplicadas por los días del mes de referencia. INE

### GRADO DE OCUPACIÓN POR APARTAMENTOS

Relación, en porcentaje, entre el total de los apartamentos ocupados y el producto de los apartamentos disponibles por los días a los que hace referencia la encuesta. INE

### ESTABLECIMIENTOS ABIERTOS ESTIMADOS

Número de establecimientos abiertos de temporada estimados por la encuesta. INE

### PLAZAS ESTIMADAS

Número de plazas estimadas por la encuesta de los establecimientos abiertos de temporada. INE

### REV PAR

Revenue per Available Room o Ingresos por Habitación Disponible: Son los ingresos medios por habitación disponible, distinguiendo, igual que en el ADR, el tipo de cliente  
 $RevPAR = ADR * \text{Grado de ocupación por habitaciones}$ . INE

### ADR

Average Daily Rate o Tarifa Media Diaria: Se define como los ingresos medios diarios obtenidos por habitación ocupada teniendo en cuenta el tipo de cliente al que se le ha aplicado  
 $ADR = RevPAR / \text{Grado de ocupación por habitaciones}$ . INE

### IPH

índice de precios hoteleros: es una medida estadística de la evolución del conjunto de precios aplicados por los empresarios a los distintos clientes que se alojan en los hoteles de España. Mide, por tanto, la evolución de los precios del sector desde la óptica de la oferta. INE

### IPTR

índice de Precios en Alojamientos de Turismo Rural: Es una medida estadística de la evolución del conjunto de precios aplicados por los empresarios a los distintos clientes que se alojan en estos tipos de establecimientos. Mide, por tanto, la evolución de los precios del sector desde la óptica de la oferta.

### ESTABLECIMIENTO HOTELERO

Se entiende por establecimiento hotelero toda unidad productora de servicios de alojamiento hotelero (hotel, hotel apartamento o apartahotel, motel, hostal, pensión, fonda, casa de huéspedes), situada en un mismo emplazamiento geográfico y en la que trabajan una o más personas por cuenta de la misma empresa.

### CAMPING

Se entiende por Campings, aquellos espacios de terreno debidamente delimitados, dotados y acondicionados, destinados a facilitar a las personas, de modo habitual y mediante el pago de un precio estipulado, un lugar para hacer vida al aire libre durante tiempo limitado con fines vacacionales o turísticos y utilizando como residencia, albergues móviles, caravanas, tiendas de campaña u otros elementos similares fácilmente transportables.

### ALOJAMIENTOS DE TURISMO RURAL

Son Alojamientos de Turismo Rural aquellos establecimientos o viviendas destinados al alojamiento turístico mediante precio con o sin otros servicios complementarios y que estén inscritos en el correspondiente Registro de cada Comunidad Autónoma.

### ALBERGUES

Se definen los albergues como establecimientos que ofrecen al público el servicio de alojamiento principalmente en habitaciones múltiples, con o sin servicios complementarios, y habitualmente con la posibilidad de practicar alguna actividad relacionada con el entorno.

### ESTABLECIMIENTO DE APARTAMENTOS TURÍSTICOS

Se entiende por establecimiento de apartamentos turísticos toda unidad productora cuya actividad exclusiva o principal es la de alojamiento de turistas, distribuidos en unidades amuebladas (apartamentos, chalets, villas, bungalows,...).

### ÍNDICE GINI

Es una medida utilizada para medir la desigualdad, que en este caso se utiliza para medir la desigualdad, en 1 que el 0 supone la igualdad absoluta y el 1 la desigualdad absoluta



## GLOSARIOA

### BIDAIARIA

Ostatu berean gau bat edo gehiago jarraian egiten dituzten pertsona guztiak. EIN

### OSTATU-GAUAK

Ostatu-gaua edo plaza okupatua da bidaiari batek establezimenduan ostatu hartzen duen gau bakoitza. EIN

### BATEZ BESTEKO EGONALDIA

Aldagai hau hurbiltzen da bidaiariak, batez beste, establezimenduetan irauten duten egun kopurura; ostatu-gauen eta bidaiari-kopuruaren arteko zatidura da. EIN

### OKUPAZIO-MAILA, GELAKA

Hilean okupatutako logelen eguneko batezbestekoaren eta aldi berean erabilgarri dauden logela guztien arteko erlazioa, ehunekotan. EIN

### OKUPAZIO-MAILA, PLAZAKA

Ostatu-gauen guztizkoaren eta plazak (ohe osagarriak barne) bider ostatu-gauetako dagozkien egunen biderkaduraren arteko erlazioa, ehunekotan. EIN

### OKUPAZIO-MAILA, APARTAMENTUKA

Okupatutako apartamentu guztien eta eskuragarri dauden apartamentuak bider inkestak aipatzen dituen egunen biderkaduraren arteko erlazioa, ehunekotan. EIN

### OKUPAZIO-MAILA, LURZATIKA

Hilean okupatutako lurzati guztien eta aldi berean kanpinean erabilgarri dauden lurzatiak bider erreferentziako hilabeteko egunen biderkaduraren arteko erlazioa, ehunekotan. EIN

### ESTABLEZIMENDU IREKIAK (ZENBATETSIK)

Denboraldi irekiko establezimenduetako inkestaren bidez estimatutako plazen kopurua. INE

### ESTIMATUTAKO PLAZAK

Sasoiko establezimendu irekien kopurua, inkestak zenbatetsia. EIN

### REV PAR

Revenue per available room edo gela erabilgarri bakoitzeko diru-sarrerak: gela erabilgarri bakoitzeko batez besteko diru-sarrerak dira; ADRn bezala, bezero-mota bereizten da.

RevPAR = ADR × okupazio-maila gelaka. EIN

### ADR

Average Daily Rate edo eguneko batez besteko tarifa: okupatutako gela bakoitzeko eguneko batez besteko diru-sarrera da, aplikatu zaion bezero-mota kontuan hartuta.

ADR = RevPAR ÷ okupazio-maila gelaka. EIN

### HPI

Hoteletako prezioen indizea: Espainiako hoteletan ostatu hartzen duten bezeroei enpresaburuek aplikatutako prezio guztien bilakaeraren estatistika-neurria da. Beraz, eskaintzaren ikuspegitik sektorearen prezioen bilakaera neurtzen du. EIN

### IPTR

Hoteletako prezioen indizea: Espainiako hoteletan ostatu hartzen duten bezeroei enpresaburuek aplikatutako prezio guztien bilakaeraren estatistika-neurria da. Beraz, eskaintzaren ikuspegitik sektorearen prezioen bilakaera neurtzen du. EIN

### HOTEL-ESTABLEZIMENDUA

Hotel-establezimendutzat hartzen da hotel-ostatuko zerbitzuen ekoizpen-unitate oro (hotela, hotel-apartamentua edo apartahotela, motela, hostala, ostatu-etxea, fonda, apopilo-etxea), kokapen geografiko berean kokatua eta enpresa beraren konturako langile bat edo batzuk dituen.

### KANPINA

Kanpintzat hartzen dira behar bezala mugatutako, hornitutako eta egokitutako lurzatiak, pertsona, eskuarki eta hitzartutako prezio bat ordainduta, aire librean bizitzeko leku bat emateko erabiltzen direnak, oporretarako edo turismorako, egoitza gisa aterpetxe mugikorak, karabanak, kanpindendak edo erraz garraia daitezkeen antzeko elementuak erabiliz.

### LANDA-TURISMOKO OSTATUAK

Landa-turismoko ostatuak dira prezio bidez turismo-ostatura bideratutako establezimenduak edo etxebizitzak, beste zerbitzu osagarri batzuekin edo horiek gabe, baldin eta dagozkien autonomia-erkidegoko erregistroan inskribatuta badaude.

### ATERPETXEAK

Aterpetxeak honela definitzen dira: jendeari ostatu-zerbitzua batez ere gela anitzetan eskaintzen dioten establezimenduak dira, zerbitzu osagarriekin edo horiek gabe, eta, normalean, ingurunearekin lotutako jardueraren bat egiteko aukerarekin.

### APARTAMENTU TURISTIKOEN ESTABLEZIMENDUA

Apartamentu turistikoaren establezimendutzat hartzen da jarduera bakarra edo nagusia turistek ostatu ematea duen ekoizpen-unitate oro, altzariz hornitutako unitateetan banatuta (apartamentuak, txaletak, finkak, bungalowak...).